

EUSKARAREN BIRIKAK

Hizkuntzen arnasmuneak babestea haien garapen iraunkorra bermatzeari

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga gonzalez

Lurraldea eta Hizkuntza” jardunaldien lehenengo edizioan, Unai Fernandez de Betoño arkitekto eta jardunaldien sustatzaileak nahi bat agertu zuen: «Jardunaldiak lankidetzara emankor baten emaitza direla azpimarratu beharra dago. (...) Espero dugu azkenak ez izatea». 2014ko urtaririla zen. Lankidetzak bere bidean aurrera egin zuen eta zazpi urte igarota, joan den larunbatean jardunaldien bosgarren edizioa izan zen Donostiako San Telmo museoan, “Lurraldea eta Hizkuntza. Arnasmuneen garapen jasagarriarantz” goiburupean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskalgintzaren Kontseiluak, Uemak eta UEUK elkarlanean antolatuta.

Urteotan, lurralde antolaketaren eta hizkuntza aldaketaren arteko harremana, eragin linguistikoaren ebaluaziorako tresnak eta lurgune euskaldunen eta arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak jorratu dituzte. Iraitz Lazkano Uemako lehendakariak honela laburbildu zuen azken edizioaren helburua, haren bezperan: «Zer egin behar den zehaztuta dago, baina nola egin behar dugun ere adostu behar da aurten». Haren ustez, jardunaldi hauek garrantzi handia dute euskalgintzaren, unibertsitatearen eta erakunde publikoen arteko elkarlanaren emaitza direlako. «Diagnostikoa egiteko, sendabidea proposatzeko eta hori herrietara zabaltzeko urratsak eragin dituzte jardunaldi hauek, euskararen arnasmuneek hizkuntzaren biziberritzean duten garrantzia ikusarazten eta ulertarazten laguntzen dute, eta udalerri euskaldunek di-

Arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak jarri ondoren, «Lurraldea eta Hizkuntza» V. jardunaldiak izan ziren duela astebete, zer egin behar den adostuta, nola egin behar den adosteko urrats gisa. Nazioarteko esperientziak, garapen sozioekonomiko endogenorako ereduak eta arkitektoen begirada bertan izan ziren.

tuzten beharrei eta erronkei erantzuteko egin beharrekoa ere zehazten dute, udalerri euskaldunak babestu eta garatu ahal izateko».

ARNASMUNEAK

Euskarak, edozein hizkuntza gutxitutik bezala, ezinbestekoak ditu arnasmuneak, euskararen ezagutza ez ezik erabilera ere nagusi duten lurguneak, alegia. 2016ko datuen arabera, 160 udalerri euskaldun daude Hego Euskal Herrian; haietan

euskararen ezagutza eta erabilera %70etik gorakoak dira. Horietatik 19 arnasmune dira, bertan %80etik gorakoak baitira ezagutza eta erabilera. Baina lurgune horiek arnasmune izaten jarraitzea ez dago inondik inora bermatuta.

Joan den larunbateko jardunaldien ondoren, GAUR8k Paul Bilbao Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusiarengana jo du azken edizio horretaz eta oro har elkarlanean egin duten bidez hitz egiteko.

Olatz Peon, Joseba Otondo eta Oier Oiarbide Tolosa, Baztan eta Gabiriako alkateak, Iker Salaberria moderatzailearekin, mahai inguruan.
Gorka RUBIO | FOKU

Berehala heldu dio gaiari: «Hasieran kezka bat zegoen, eta haren inguruko hipotesi bat. Arnasmune geografikoek hizkuntza baten normalizazio prozesuan garrantzi handia dute eta, beraz, erdigunean jarri beharra dago, ez bakarrik ondarearen ikuspegitik, esate baterako indiarren erreserbekin egiten zen bezala, hizkuntzaren gutxiagotze prozesua geografikoa ere izan dela kontuan hartuta, mapetan ikusten den bezala, eta gutxiagotzea geografikoa izan den bezala, hedatzea ere geografikoa izan daiteke».

Kezkak zuten herri horietako gazteek eskualdeburu batera joaten direlako, edo biztanleriaren oreka aldatzen delako, eta arazo horiek aztertze-ari ekin zioten. «Gure oinarri bat hizkuntza politikan arnasmuneek zentralitatea hartzea zen; hori batetik, eta bestetik, kontuan izan hizkuntza politika hemen ez dela hizkuntza politika politiketatik bakarrik egiten; beste politika politiketatik ere egiten da, eta arnasmuneei dagokienez, hain justu, are ageriago geratzen zela ikusten genuen; besteak beste, lurralde antolaketako politika».

Kanpoko ereduak ekarri zituzten, hala nola Galeskoa, han arnasmuneen gutxiagotze prozesua oso landuta daukate eta, edo Flandriakoa. Halaber, hainbat arlotako pertsonak erakartzen saiatu ziren, hala nola arkitekturaren eta lur antolaketaren esparruetatik, hipotesiak egiaztatzeko. Behin horiek egiaztatuta, eta Galesko ereduari jarraituz, pentsatu zuten interesgarria litzatekeela arnasmuneetan lurralde antolaketarekin zerikusia duten erabakiak hartzen direnean, hizkuntzan zer eragin izango duten ikustea. Hortik etorri



zen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa, Uemak osatu eta bigarren edizioan aurkeztu zuten tresna. «Horren garrantzia tresna bera zen, baina ez bakarrik diagnostika egiteko, baizik eta, are garrantzitsuago, neurriak hartzeko», dio Bilbaok.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa duela urte bi EAEko Udal Legea garatzeko dekretuan jaso zen, eta nolabaiteko derrigortasuna omen du: «Gaur egun EAEn arnaguneetan derrigorrezkoa da ebaluazio hori egitea, eta gero neurri zuzentzaileak hartu behar dira, betiere argi geratuta kontua ez dela arnaguneak elementu isolatu bihurtzea. Zenbait etxe eraiki behar badira, ikusi beharko da horrek zer eragin izango duen eta orduan erabaki beharbada etxe horiek guztiak ezin direla eraiki, edo urtebetean eraiki beharrean hogeitau urtean egin beharko direla».

Euskaigintzaren, unibertsitatearen eta erakunde publikoen arteko elkarlana dira jardunaldi hauek. «Zer egin behar den zehaztuta dago; nola egin behar dugun ere adostu behar da aurten»

«Prebentzioa hor dago, baina badago beste errealitate bat: udalerri horiek ere garapen bat behar dute, bestela, hustu egingo dira. Hor dago garapen jasangarriaren kontzeptua»

PREBENTZIOTIK GARAPENERA

Edonola ere, arnaguneek prebentzioa baino zerbait gehiago behar dutela sumatu zuten: «Egia da lehen prebentzioaren ikuspegitik jokatzeko gurela; hori printzipio bat da, osasun sisteman ere bai, ezta? Gero sendatu behar ez izatea, alegia. Baina azken-aurreko jardunaldietan jauzi bat egin genuen; prebentzioa hor dago, baina badago beste errealitate bat: udalerri horiek ere garapen bat behar dute, bestela, hustu

egingo dira. Hor dago garapen jasangarriaren kontzeptua».

Lurgune euskaldunetan garapen iraunkorraren beharra ikusi zuten, beraz, eta garapen horrek integrala izan behar zuela: «Hori azken-aurreko jardunaldietan jorratu genuen, oso elementu interesgarria izan zen. Orduan esaten genuen hiru ardatz zehaztu behar zirela: sozioekonomikoa, soziokulturala eta sozioekologikoa». Ondoren, lanerako erronkak definitu zituzten: garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatua, garapen sozioekonomiko sistemiko eta endogenoa, tokiko oinarritzko zerbitzuen garapena, hizkuntza komunitatean ardaztutako garapen soziokulturala, balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako nortasunaren garapena, arnaguneen saretea eta hedapena, eta hizkuntza komunitatea ardatz duten politika publikoak. Erronka bakoitzari dagozkion esku-hartze proposamenak ere landu zituzten; esate baterako, garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatuaren kasuan, hazkundera aztertu beharra, hazkunde endogenoaren beharretara egokitzeko, esate baterako, gazteei bideratutako ekintza planak diseinatzeko, herrian gera daitezkeen.

GARAPEN ENDOGENOA

Aurtengo jardunaldietan ideia horiek erabat baliagarriak direla egiaztatu dute, eta horiek lantzen jarraitu behar dutela. Jauzi bat egin nahi zuten, eta Bilbaok Joseba Garmendiaren lankidetzara nabarmendu du. Tokiko garapena aztertu du ekonomialari eta EHUKo irakasle horrek. «Prebentziotik garapen iraunkorrera egin beharra dago, baina garapen hori herri horiek behar duten beste

garapenarekin uztartuta. Ertz asko dituen garapena, eta ertz horietako bat hizkuntza da», dio Bilbaok.

Joan den larunbatean Imanol Esnaola Gaindegiko kideak gidatu zuen elkarriketan, Garmendiak azaldu zuen udalerri euskaldunek eta arnaguneek ekonomikoki ez dutela beste herriekiko ezberdintasunik: «Ezberdintasuna erronka da. Garapen ekonomikoan, ordea, ez dago alderik».

Lurgune euskaldunentzat garapen ekonomikorako estrategiak nola eraiki aztertu zuen Garmendiak, baita tokikotasunaren indarguneak eta ahulguneak ere, eta tokiko eskalaren indarguneak askoz garrantzitsuagoak direla nabarmendu zuen. Eta arnaguneen erronka izan daitekeena agertu zuen: «Iraunkortasuna epe luzera bideratzeko prozesuak abiaraztea». Horretarako, bide-orria zehaztu beharra eta adostasunak lortzea ere funtsezkoa dela esan zuen. «Oso garrantzitsua ez ezik, posible ere bada. Mentalitate aldaketa ere ezinbestekoa da: eskatzeari utzi eta egiten hastea. Jarra proaktiboa». Ondoren tresnak eta arkitekturak eraiki behar direla esan zuen, eta azkenik, plan estrategiko bat garapenerako ekimen zehatzak gauzatzeko.

LEGE MARKO BATEN BEHARRA


Bestalde, oso garrantzitsutzat jotzen dute arnaguneentzako lege marko propio bat. «Momentuz zerbait lortu dugu», dio Bilbaok. «Arazoa seinatu genuen, irtenbidea jarri genuen, esperientzia pilotuen bidez probatu genuen eta politikariek, EAEn behintzat, bere egin zuten».

Babes juridikoari begira, nazioarteko esperientzien berri



Jardunaldien aurkezpena, duela aste bi. Gorka RUBIO | FOKU

Arnasguneen garapen jasangarriari begira eta aurrez definitutako erronkei (ezkerrean) erantzuten dieten eskuhartze proposamenak (eskuinean)	
Garapen demolinguistiko jasangarri eta orekatua	Lurralde Antolaketarako Gidalerroetan, udalerrri bakoitzak duen gehienezko hazkundera (etxebizitza berri kopurua), arnasguneen kasuan, hazkunde endogenoaren beharretara egokitu
	Gazteei bideratutako ekintza-plana (besteak beste etxebizitza eta laguntza politikak) diseinatzea, herrian jarraitzeko erraztasunak izan ditzaten
Garapen sozioekonomiko sistemiko eta endogenoa	Arnasguneetako herritarren behar eta konpetentziak zein inguruak eskaini eta jasan ditzakeen aukera- eta jardun-dinamikak (ikerketa, nekazaritza, energia berriztagarriak...) ere aintzat hartuta, tokiko garapen sozioekonomikorako plana diseinatzea
	Arnasguneetako eta arnasguneen eskualde-buruetako lantoki berrien ezarpenari hizkuntza-irizpideak ezarriko dizkien araudia garatu
	Herrian edota eskualdean ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako proiektu komunitarioak eta ekonomikoak babestu eta berriak sortzea sustatu
Eskualde mailako Oinarrizko Zerbitzuen garapena	Arnasguneen garapenerako oinarrizko zerbitzuak katalogatu (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak...) eta herrian bertan zein eskualde-mailan eskaintza integrala osatzeko plana garatu, horretarako egon litezkeen baldintzak (ume kopurua, ratioak...) malgutzuz
Hizkuntza-komunitatean ardaztutako garapen soziokulturala	Herri-giro bizia bermatzeko ekipamendu eta elkarteak eratu, lagundu, saretu eta estrategikoki kokatu daitezen neurriak hartu (hirigintza-plangintza)
Balio aurrerakoi eta komunitarioetan oinarritutako nortasunaren garapena	Hizkuntza jarrerak eta praxi egokiak (ahalduntzea, erresilientzia, memoria soziolinguistikoa...) lantzeko eskolaz kanpo eta eskolarako proiektu Curricularra landu
	Kanpotik arnasguneetara bizitzera etorritako herritarrei bertako komunitateko kultura eta praxiak transmititu eta inklusioa errazteko, harrera-programa egokiak (etorri berrien jatorri eta beharretara egokitua) diseinatu eta inplementatu
Arnasguneak saretzea (korridoreak) eta hedapena garatu	Arnasguneen (lurgune eta soziofuntzionalak) saretzea (korridoreak) eta hedapena garatzeko lurralde plan sektoriala (LPS) diseinatzea
	Arnasguneen (lurgune eta soziofuntzionalak) saretzea (korridoreak) garatzeko mugikortasun planak definitu
Hizkuntza-komunitatea ardatz duten politika publikoen garapena	Arnasguneen (lurguneak eta funtzionalak) lege-kategorizazioa eta izendapena landu. Horren arabera, eremu horietarako politika publikoetako baldintza bereziak ezarri



Lurgune euskaldunen garapen iraunkorrari begirako hiru ardatzak. GAUR8

izatea komenigarria dela dio Kontseiluko idazkari nagusiak. Azken jardunaldietan Conchur O Giollagain Highlands and Islands Unibertsitateko (Eskozia) irakaslea elkarrizketatu zuen. «Izan ere, arnasguneak ez dira bakarrik Euskal Herriko kontua, egoera gutxituan dauden hizkuntza guztiek ikusi dute zein beharrezkoak diren lurgune horiek».

Giollagainek Gaeltacht irlan-dera eremuari eman zioten lege aitortzaren gainean hitz egin zuen. Oso beharrezkoa dela dio lege babes hori, baina egokia izan behar duela. Ikuspegi kritikoa du Irlandako hizkuntza politikaren inguruan. Haren ustez, Irlandan aplikatzen den hizkuntza politikak badu nolabait ondare zaintza-ren kutsu handiagoa biziber-ritze politikarena baino: «Komunitateak izan behar du garrantzia, harekin hitz egin, hari entzun, haren beharrak ikusi behar dira. Komunitatearen gaitasun kolektiboan zen-tratu beharrean, politikak ezartzeko modu horrek kultu-ran, hezkuntzan zentratzen di-ra, baina elementu horiek eu-

rek bakarrik ez dute salbatuko edo babestuko hizkuntza edo komunitate gutxitu bat. Irlan-dera sustatu egiten da, baina ez da babesten».

Bilbaok dioenez, horrek argi ikusarazi zien euskal arnasgu-neek ere lege marko bat behar dutela, lege babes bat behar dutela, «baina ez ondare poli-tikan oinarritutakoa, baizik eta biziber-ritze politikan, gu-rean ere komunitatea ekarri behar dugulako erdigunera».

ARKITEKTURAREN IKUSPEGIA

Nora Erdozia arkitektoaren eta Arritxu Zelaia hizkuntza ahol-kulariaren parte-hartzea inte-resgarria ez ezik, oso ariketa praktikoa ere izan zen, ikuste-ko lurralde antolaketan herrie-tako antolaketarako prozedu-rak abian jartzen direnean zer hartu behar den kontuan. Ar-nasguneak babesteko hirigin-tza nola baliatu azaldu zuten.

«Hizkuntzan ez ezik, identi-tatean edo nortasunean ere eragiten du plangintzarik ga-beko proiektu batek. Zer, zen-bat, norentzat eta nola egiten den determinantea da arnas-guneen biziraupenerako»,

esan zuen Zelaiak, eta bi ardatz seinalatu zituen: oreka eta harremanak.

Oreka kopuruan; esate baterako, gehiegizko hazkundera saihestu beharra, dauden etxebizitzaren eta egingo direnen arteko oreka, alegia. Oreka, etxeen tipologiari dagokionez; baita eskarian eta eskaintzan, eta lekuari dagokionez ere; esate baterako, ingurune zaurgarrienean eraikitzea saihestuz. Eta oreka denboran, populazio hazkundera handia zaila baita denbora laburrean asimilatzen, eta integrazio aldetik arazo handia baita.

«Harremanetarako arkitektura egitea ere garrantzitsua da. Hizkuntza transmisiorako, edo etorri berrien eta lehendik zeuden arteko harremanetarako», esan zuen Erdoziak, harremanak erdigunean jartzearen garrantzia nabarmenduta. «Arkitekturak eta hiri-gintzak ez dituzte sortzen harreman sozialak, baina asko lagundu edo oztopatu ditzakete». Eta galdera interesgarri baina erantzun errazekoak plazaratu zituen: «Zer ikuspegi sustatu behar da? Merkatuaren edo norbanakoen ikuspegia, ala kalea eta herri bizitza sustatzeko ikuspegia?».

ZEHARKAKOTASUNA

Amaitu aurretik, Tolosako, Gaboriako eta Baztango alkateen txanda izan zen. Olatz Peon, Joseba Otondo eta Oier Oiarbidek beren udalerrietako hizkuntza egoera eta politika azaldu zituzten. «Hiru testuinguru arrunt desberdin», dio Bilbaok. Hala ere, haien parte-hartzeak berretsi omen zuen «jardunaldien hipotesietatik eratorritako ondorio bat: benetan politika guztietatik egiten dela hizkuntza politika,

eta hizkuntza politika beste politika guztietan egin behar dela. Lurralde antolaketaz ari gara, baina hizkuntzaren zeharkakotasuna kontuan hartu beharra dago».

ONDORIOAK

Jardunaldiak amaitu baino lehen, Iraitz Lazkanok eta Paul Bilbaok goiz osoan izandako parte-hartzeetatik ateratako ondorioak agertu zituzten.

Lehenengoa, 2019an garapen iraunkorrari begira zehaztutako hiru ardatzek indarrean segitzen dutela: garapen sozioekonomikoa, soziokulturala eta sozioekologikoa. Baita ardatz horien barruan ezarritako zazpi erronka nagusiek ere, eta aurrera begirako lan-ketarako baliagarriak direla.

Bigarren ondorio gisa, pandemiak inoiz baino ageriago utzi duen zerbait nabarmendu zuten: hainbat gizarte sektoreen zaurgarritasuna eta interdependentzia: «Arnasguneei dagokienez ere, begien bistan dago hizkuntzaren normalizazio prozesuetan duten garrantziarekin batera, euren izaera zenbateraino den zaurgarria. Are gehiago, globalizazio prozesua azkartzen ari delarik, inguruarekin duten interdependentzia gero eta sakonagoa den garaiotan».

Hirugarren ondorioa, jendartea gero eta elkar-lotuago eta inguruarekin elkarreragin etengabea bizitzeak politika publikoetan hizkuntza normalizazioa zeharkakotasunez lantzea eskatzen duela ezinbestean: «Sozioekonomia, lurralde antolaketa, arkitektura eta beste hainbat gai jada ezin dira planteatu ezagutza eta esparru iragazgaitz gisa, eta beharrezkoa da horietan guztietan hizkuntza normalizazioaren begirada txertatzea».

«Harremanetarako arkitektura egitea ere garrantzitsua da. Hizkuntza transmisiorako, edo etorri berrien eta lehendik zeuden arteko harremanetarako», esan zuen Erdoziak

Ondorioetako bat izan zen bideak urratu behar direla ondare ere duan oinarritutako politikak baztertu eta biziberritze ere duan eta arnasguneen garapenean oinarrituak egiteko

Laugarrenik, arnasguneen garapenean oinarritutako politika publikoei dagokienez, «aurreko ondorioaren bidetik jarraituta, beharrezkoa da politika publiko guztietan arnasguneen garapena aintzat hartzea, eta arnasguneen garapenaren ikuspegia hasieratik bertatik txertatua egon beharko litzateke».

Horrenbestez, hizkuntza politiketan ondare ere duan oinarritutako politikak baztertu eta biziberritze ere duan eta arnasguneen garapenean oinarritu-

tako hizkuntza politikak egiteko bideak zabaldu beharko liratekeela nabarmendu zuten.

Azkenik, arnasguneen garapenari bermea eta babes juridikoa emango dion lege markoa garatzea beharrezkoa dela ondorioztatu zuten. Esan zuten, Irlandako aurrekaria baliagarria zaie, eta haren onurak eta gabeziak mahai gainean jarri nahi izan zituzten. Horiek ikusita, «hutsuneak hutsune, tresna horren potentziala eta beharrezkotasuna agerian geratu dira».

Aretoan jende kopurua murriztu behar izan zuten; hala ere, lagun askok jarraitu zuten topaketa zuzenean, UEUren Youtubeko kanaletik.
Gorka RUBIO | FOKU

